

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Guardiako Udaleko langileen plantillan hutsik dagoen administrari laguntzaile plaza bat (1) oposizio-lehiaketa aske bidez betetzeko deialdia eta hautaketa prozesua arautzeko oinarriak

Alkatearen 2025eko irailaren 12ko dekretu baten bidez, erabaki zen onespena ematea Guardiako Udaleko langileen plantillan hutsik dagoen administrari laguntzaile plaza bat (1) oposizio-lehiaketa aske bidez betetzeko deialdiari eta hautaketa prozesua arautzeko oinarriari.

Alkate-lehendakariari dagokio hautaketa probak zuzentzeko oinarriak eta deialdia onestea, 7/1985 Legearen 102. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Azaldutakoa dela eta, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea dekretu honen E taldeko administrari laguntzaile plaza bat (1) oposizio-lehiaketa aske bidez betetzeko deialdia arautuko duten oinarriak, l. eranskinean agertzen direnak.

Bigarrena. Dekretu hau korporazioko organo eskudunei helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Hirugarrena. Oinarriak oso-osorik ALHAOn argitaratzea, baita Guardiako Udalaren iragarki taulan eta egoitza elektronikoan ere, eta 20 egun balioduneko epea irekitzea eskaerak aurkezteko, BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Guardia, 2025eko irailaren 12a

Alkate-lehendakaria

RAÚL GARCÍA EZQUERRO

Guardiako Udaleko langileen plantillan hutsik dagoen administrari laguntzaile plaza bat (1) oposizio-lehiaketa aske bidez betetzeko deialdia arautuko duten oinarriak

Lehenengoa.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da udal honetako funtzionarioen plantillan hutsik dagoen administrari laguntzaile plaza bat (1), 2024ko enplegu publikoaren eskaintzakoa, oposizio-lehiaketa aske bidez betetzea karrerako funtzionario gisa.

Plaza administrazio orokorreko eskalan sartuta dago, administrarien azpieskalan, C sailkapen profesionaleko taldean, C2 azpitaldean, eta administrari laguntzaile izeneko lanpostu baten ondorio da.

Eskatzen den titulazio espezifikoa: DBHko graduatu titulua edo baliokidea.

Lanpostuak 18 destino-osagarria, guztira 6.457,99 euroko berariazko osagarria eta 2. hizkuntza eskakizuna (idatzizkoaren eta ahozkoaren ulermen simetrikoa) ditu esleituta, eta ez dauka iga-rotako derrigortasun datarik. Arduraldi partziala ehuneko 50ean.

Hautaketa sistemaren osagarri, praktikaldia egingo da; hautaketa prozesuaren beste fase bat izango da.

Bigarrenen.- Prozedura

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 78. artikulua arabera, hautaketa prozedura oposizio-lehiaketa izango da.

Hirugarrenen.- Eginkizunak

Bete beharreko eginkizunak lanbide kategoriari dagozkionak izango dira; hona hemen, haietako batzuk:

- Jendearen harrera egitea.
- Aplikazio informatikoak maneiatzea.
- Online bankua.
- Garbiketa produktuen eskariak egitea.
- Posta jaso eta bidaltzea.
- Ziurtagiriak, helbideratzeak eta ondasunak ematea.
- Tasak eta zergak: OHZ, zaborrak, TMIZ, JEZ, ibiak, lurperatzeak, hilerria, azoka, terrazak...
- Altak, bajak, aldaketak, jakinarazpenak.
- Dirubilketa.
- Ordaintzeke dauden zergak eta tasak Dirubilketa Agentziarekin izapidetzea.
- Sarrera eta irteeren erregistroa:
- Fakturen sarrera eta diruzaintzara bideratzea.
- Tasen eta zergen espedienteen irteerak.
- Bulegoan aurkeztutako eskaera orrien sarrerak.
- Diruzaintza:
- Bulegoko diruzaintzako eragiketak egitea (tasak eta zergak kobratzea).
- Banku erakundeekin mugimenduak, hirugarrenei egindako ordainketak, ordainagirien ko-brantzaren kudeaketa, saldoak... kontrolatzea.
- Jendearen harrera egitea.
- Tasak eta zergak, errolda, katastroa, hirigintza...
- Salaketak izapidetzea.
- Gainbalioak izapidetzea.

Laugarrenen.- Araudi aplikagarria

Plaza jabetzan betetzeko hautaketa prozesuaren deialdiari araudi hau aplikatuko zaio:

- Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia.
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzkoa.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.
- 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Toki administrazioako funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarrizko arauak eta gutxieneko programak ezartzen dituenak.

— Osagarri gisa, Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzura diharduten langileen sarre-rari, lanpostuak betetzeari eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanbide sustapenari buruzko Erregelamendu Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsia.

— 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoa.

— 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera nor-malizatzeari buruzkoa.

— 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkide-arena.

— 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarena.

— 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragin-garrirako.

— 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasu-nerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena.

— 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko.

— 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta dokumentuak babesteko euskal bulegoa sortzeari buruzkoa.

— 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoa.

— Toki araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testuategina, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia.

— 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.

— Oinarri arautzaile hauek.

Bosgarrena.- Izangaiei betekizunak

Deialdian parte hartu nahi duten pertsonak apartatu honetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, eta baldintza horiek betetzen jarraitu beharko dute lanpostuaz jabetu arte. Onartuak izateko, eta hautaketa prozesuan parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiek:

a) Espainiako nazionalitatea edo Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea edo, bestela, Europar Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunak ezartzearen ondorioz, langileen zirkulazio askea Europako Erkidegoa eratze-ko Itunean zehaztutakoaren arabera onartuta daukan estaturen bateko nazionalitatea edukitzea.

b) Europar Batasuneko estatu-erantzuleen herritartasuna dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, betiere zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude; herritartasuna duenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere —betiere zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude— parte hartu ahal izango dute, baldin eta 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira (5/2015 Errege Lege Dekretua, 57. art.).

c) Aldez aurreko eskaera egitea.

d) Behar den besteko gaitasun funtzionala izatea egitekoak betetzeko.

e) Hamasei urte beteta edukitzea eta dagokion nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina gainditu gabe izatea.

f) Diziiplina espediente bidez baztertuta ez egotea administrazio publiko, organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako estatutuen arabera erakunderen batetik, ez eta epai bidez erabat edo bereziki desgaituta ere enplegu edo kargu publikoak izateko edo funtzionarioen kidegora edo eskalara sartzeko.

g) Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta bere estatuan enplegu publikora iristea eragozten duen diziiplina zehapenik edo baliokiderik ez izatea.

h) DBHko graduatu titulua edo baliokideren edukitzea edo hura eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea, edo ziurtagiria edukitzeko baldintzak betetzea eskaera aurkezteko epea amaitzen den egunean.

i) Titulua atzerrian lortu duten izangaiek baliozkotuta daukatela frogatu beharko dute, edo bestela, kasua bada, homologazioaren egiaztagiria badutela.

j) Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei dagokienez indarrean dagoen araudian ezarritako ezintasun edo bateraezintasun kasuren batean ez egotea; nolanahi ere, gaur egun kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezinen bat dutenek aipatutako lege arauak ezarritako aukeratzeko eskubidea baliatu ahal izango dute.

k) Eskaerak aurkezteko epearen barruan ezarritako berrogeita hamar euroko tasa ordaindu izana edo tasa ordaintzetik salbuetsita egotearen egiaztagiriak epe horren barruan aurkeztu izana.

Hautaketa prozesu honetako hautagaiek berariazko baimena ematen dute, kontrakoa adierazi ezean, beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta xederako tratatzeko.

Seigarrena.- Eskaera orriak

Dagokion hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaera orriak, zeinetan izangaiek adierazi beharko baitute deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela, 20 egun balioduneko epean aurkeztu behar dira, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Guardiako Udalean (herri horretako Plaza Nagusia 1) edo Guardiako Udalaren egoitza elektronikoan. Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean horretarako gaitutako erregistroetan ere aurkeztu ahal izango dira. Administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera legez behartuta egonez gero, egoitza elektronikoan aurkeztuko da.

Eskaerak eredu ofizial eta normalizatuaren arabera izango dira. Eredu hori doan emango da Guardiako udaletxean, eta eskuragarri egongo da, halaber, udalaren webgunean eta egoitza elektronikoan. Udaleko alkateari zuzenduko zaizkio.

Eskaera aurkezten ez bada, edo eskaerak aurkezteko epearen barruan tasa ordaintzen ez bada, edo ordaindutako tasaren zenbatekoa okerra bada, hautagaia ez da hautaketa prozesuan onartuko.

Honela ordainduko dira langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasak:

— Tasaren ordainketa nominala izango da, indibidualizatua hautapen prozesu bakoitzeko, eta kuota berrogeita hamar eurokoa izango da.

— Tasa autolikidazio bidez ordaintzeko eskatuko da, eta edozein entitate laguntzaileraren bidez ordaindu ahal izango da (Kutxabank: ES18 2095 4408 55 1095224852 eta Laboral Kutxa: ES 28 3035 0146 021461003704), edo bulegoetan, bankuko xartelaren bidez.

— Tasa ordaintzetik salbuetsita daudenak: ez da halakorik jaso.

— Eskaerak aurkezteko epean tasa ordaintzen ez bada edo osorik ordaintzen ez bada, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da.

Hala ere, ordaindutako tasaren zenbatekoan egindako akatsa zuzendu ahal izango da, deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioa jarrita epe barruan eta dagokion zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen duen agiria erantsiz.

Tasa epearen barruan ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskaera oinarri hauetan adierazitako epean eta moduan aurkeztea. Ondorioz, eskaera ez aurkezteak deialdian ez onartzea ekarriko du.

Izangaiek eskaeran emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da, eta fitxategi horren erabilera hautaketa prozesua kudeatzera mugatuko da. Fitxategi horren erabilera eta funtzionamendua Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak arautuko dute.

Ofizioz, betekizun/informazio hauek egiaztatu eta/edo espedientean sartuko dira, baldin eta interesdunak parte hartzeko eskaeran berariaz baimentzen badu:

- ☐ Nortasun datuak egiaztatzea.
- ☐ Titulu ofizialak.
- ☐ Hizkuntza eskakizun altuena (euskara).

Aurkeztu beharreko agiriak udalaren esku badaude, ez da beharrezkoa izango berriro aurkeztea, betiere noiz eta zein bulegotan entregatu ziren adierazten bada, eta dagokion prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira.

Udalak, eskura dituen datuen bitartekotza sistemen bidez, administrazioaren esku dauden interesdunen datuak egiaztatu eta kontsultatuko ahalko ditu, bai eta eskaera honen administrazio izapidetzerako eskatzen den beste edozein datu ere, horretarako inprimakietan adierazitakoaren arabera. Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6. artikuluan (pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko, bai eta gainerako legerian ere. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak dituzten dokumentuak edo ziurtagiriak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesdunak (edo haren ordezkariak) parte hartzeko eskaeran berariaz baimena ematen badu; baimenik ematen ez badu, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Arrazoi teknikoengatik elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, udalak izapideak egiteko beharrezkoak diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu. Gainera, 40/2015 Legeak 155. artikuluan ezartzen du administrazioek lankidetzan jardun behar dutela datu trukean eta herritarrei buruz dauzkaten datuak eman behar dizkiotela elkarri.

Eskaerarekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

— Deialdian parte hartzeko eskatzen den titularen fotokopia, datu bitartekaritzako plataformaren bidez lortzerik ez badago.

— Euskara egiaztatzen duen ziurtagiri edo tituluren baten fotokopia, baldin eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan erregistratuta ez badago, euskararen balorazioa egiteko.

Izangaiek probak zein hizkuntzatan (euskaraz edo gaztelaniaz) egin nahi dituzten adierazi beharko dute eskaeran. Ezer esaten ez bada, proba guztiak gaztelaniaz egingo dira.

Zazpigarrena.- Izangaiak onartzea

Eskaerak aurkezteko epea bukatutakoan, alkate-lehendakariak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onesten duen ebazpena emango du. Ebazpen hori ALHAOn argitaratuko da, eta ediktu taulan eta udalaren web orrian jarriko da ikusgai. Behin-behineko zerrendan, baztertutako izangai bakoitzaren baztertzeko arrazoiak zehaztuko dira, eta hamar (10) egun balioduneko epea emango da erreklamazioak egiteko eta eskaeran dauden akatsak zuzentzeko, eta ohartaraziko da, hala egin ezean, eskaera beste izapiderik gabe artxibatuko dela.

Epe hori igarota, erreklamaziorik aurkeztu ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da. Erreklamazioren bat egonez gero, beste ebazpen baten bidez baietsi edo ezetsiko da. Ebazpen horrek behin betiko zerrenda onetsiko du, eta ALHAOn, udalaren ediktu taulan eta web orrian argitaratuko da.

Ebazpen horren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteke epean, onartuen eta baztertuen zerrenda ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Nahi izanez gero, aurrez, berraztertzeke errekurtsua jarri ahal izango da, hilabeteke epean.

Probak egiten diren egunean, aurkeztutako errekurtsua ebatzita ez badago, egoera horren eraginpeko izangaiek azterketa egin ahal izango dute, baina probak ez du baliorik izango aipatutako errekurtsua ezetsiz gero.

Betiere, hautaketa prozeduran onartuak izateko, izangaiek egiaztatu beharko dute hautaketa prozeduran eskatzen diren baldintza orokorrak eta bereziak betetzen dituztela, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera aurkeztu behar den dokumentazioa emanez. Interesdunak ez badu egiaztatzen agiri bidez esandako baldintzak betetzen dituela, galdu egingo ditu hautaketa prozesuan parte hartzearen ondorioz sor daitezkeen eskubide guztiak.

Zortzigarrena.- Epaimahai kalifikatzailea

1. Oposizio-lehiaketako probak eta merezimenduak zehaztu, garatu eta ebaluatzeke eta parte hartzaileak hautatzeko, epaimahai kalifikatzailea eratuko da, honako hauetan xedatutakoa betez: Enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren Legearen testuategia onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikulua, ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuaren 4. artikulua, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81. eta 189. artikulua, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testuategia onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.b) artikulua.

Epaimahaiburuak, hiru bokalek eta idazkariak osatuko dute epaimahai kalifikatzailea. Epaimahaikideetako bat IVApek izendatuko du, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 22.4 eta 81.11 artikuluetan horretarako ezarritakoaren arabera.

Epaimahaia osatuko duten titularren eta ordezkoen zerrenda erakundeko ediktu taulan eta web orrian argitaratuko da, alkateak izendatu eta gero.

2. Epaimahai kalifikatzailearen jarduna kide anitzeko organoen funtzionamendua arautzen duten arauen arabera izango da.

Epaimahai kalifikatzaileko kideei Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan jasotzen diren abstenitzeko eta errekusatzeko arrazoiak aplikatuko zaizkie. Epaimahaikideek dagozkien ordainak jasoko dituzte zerbitzuengatik, bertaratzeenak barne, horri buruz indarrean dauden arauak aplikatuta.

3. Hautaketa sistema osatzen duten probak garatzea eta ebaluatzea epaimahai kalifikatzaileari dagokio; erabat burujabe izango da bere egitekoetan, prozeduraren objektibotasunaren erantzukizuna izango du, eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko du.

4. Epaimahai kalifikatzaileak aholkulariak sartu ahal izango ditu hautaketa prozesuko proba guztietan edo haietako batzuetan lan egiteko. Aholkulariok, berriz, nork bere espezialitate teknikoan jardungo dute, ez beste ezertan. Aholkulari horien jarduna ere objektibotasun, inpartzialtasun eta konfidentzialtasun printzipioen mende egongo da.

5. Epaimahai kalifikatzaileak neurri egokiak hartuko ditu oposizio aldiko ariketak, idatziz egiten direnak eta epaimahaiaren aurrean irakurri behar ez direnak, izangaien nortasuna jakin gabe zuzenduko direla bermatzeko.

6. Epaimahai kalifikatzaileak gaitasuna izango du hautaketa sistema behar bezala garatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian; bidenabar, oinarriok interpretatu eta aplikatzeari dagokionez sor daitekeen auzi oro ebazteko gaitasuna ere izango du, baita bere eginkizunak garatzeari dagokionez ere. Era berean, epaimahai kalifikatzaileak ebartziko ditu arau hauek aplikatzean sor litezkeen zalantza guztiak, baita arautu ez diren kasuetan zer egin behar den ere.

7. Epaimahai kalifikatzaileak ezingo ditu hautatu deialdiko plaza kopurua baino izangai gehiago. Muga hori hausten duten proposamenak erabat deusezak izango dira.

8. Epaimahai kalifikatzaileak probak edo ariketak egiteko egunak eta emaitzak jakinarazteko hartzen dituen erabakiak jendaurrean jarriko dira erakundearen ediktu taulan eta web orrian.

9. Jakinarazpenak egin eta gainerako gorabeherak ebazteko, epaimahai kalifikatzaileak Guardiako Udalean edukiko du egoitza (Plaza Nagusia z.g., 01.300 posta kodea, Guardia, Araba).

HAUTAKETA PROZESUA

Bederatzigarrena.- Oposizioa

Oposizio aldia izango da proba hauek egitea:

1. Lehenengo proba, derrigorrezkoa eta baztertzaila. Ezagutza proba izango da, eta test motako galdetegi bati idatziz erantzun beharko zaio.

Edukiak zehazteko, oinarri hauen I. eranskin gisa erantsitako gai zerrendan jasotakoa hartuko da kontuan (zati orokorra).

Epaimahai kalifikatzailearen esku geratzen da galderen kopurua eta probaren iraupena zehaztea. Ariketaren hasieran emango da horren berri.

Test moduko galdetegiko galdera bakoitzak lau erantzun izango ditu aukeran, eta haietako bakarra izango da zuzena. Erantzun okerrekin erantzun zuzen bakoitzari esleitutako balioaren ehuneko 25eko zigorra izango dute. Bete gabeko erantzunak ez dira zigortuko.

Proba horretan 0 eta 10 puntu artean emango dira, eta gutxienez 5 puntu lortzen ez dituztenak automatikoki baztertuko dira.

Hautaketa sistema ondo joan dadin, epaimahai kalifikatzaileak, kontuan hartuta eskatu daitekeen gutxienezko maila eta proba honetan erakutsitako ezagutza maila, izangaien nortasuna ezagutu baino lehen, ariketa gainditzeko gutxienez atera beharreko nota zein den erabaki ahalko du, eta erabaki hori jendaurrean azalduko da. Proba gainditzeko gutxienezko puntuazioa ez da inola ere 4 puntu baino gutxiago izango.

2. Bigarren proba, nahitaezkoa eta baztertzaila. Ezagutza proba izango da, eta deialdi honetako gai zerrenda espezifikoan jasotakoari edo egin beharreko eginkizunei buruzko kasu teoriko-praktiko bat edo batzuk, test erakoak, ebaztean datza (gai zerrenda espezifikoaren I. eranskinean dago jasota). Bigarren proba idatziz egingo da, test erako galdetegi baten bidez. Test moduko galdetegiko galdera bakoitzak lau erantzun izango ditu aukeran, eta haietako bakarra izango da zuzena. Erantzun okerrekin erantzun zuzen bakoitzari esleitutako balioaren ehuneko 25eko zigorra izango dute. Bete gabeko erantzunak ez dira zigortuko.

Epaimahaiaren esku geratzen da kasu kopurua, probaren iraupena, epaimahaiak ezarritako agiriak erabili ahal diren ala ez eta abar zehaztea. Hori guztia ariketa hasi baino lehen argitaratuko da.

Ariketa honetan, gehienez, 25 puntu lortu ahal izango dira eta, hura gainditzeko, gutxienez, 12,5 puntu lortu beharko dira.

Hautaketa sistemak behar bezala aurrera egin dezan, epaimahai kalifikatzaileak, kontuan hartuta eskatu daitekeen gutxienerako maila eta proba honetan erakutsitako ezagutza maila, izangaien nortasuna ezagutu baino lehen, ariketa gainditzeko gutxienez atera beharreko nota zein den erabaki ahalko du, eta erabaki hori jendaurrean azalduko da. Proba gainditzeko gutxienerako puntuazioa ez da inola ere 10 puntu baino gutxiago izango.

Hamargarrena.- Oposizioko proben nondik norakoa

1. Hasiera.

Oposizio aldiko ariketak ezin izango dira egin deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik gutxienez hilabete igaro arte.

Oposizio aldiko ariketa bakoitzean, ariketa horiek zuzendu ondoren, eta izangaien identitatea azaldu eta bakoitzaren kalifikazioa zehaztu aurretik, epaimahaiak ariketa gainditzeko behar diren gutxienerako puntuak lortzeko behar den ezagutza maila edo atalasea ezarri ahal izango du.

Epaimahai kalifikatzaileak erabaki dezake oposizio aldiko probak oinarriotan aurreikusi ez den beste ordena batean egitea, edo deialdi bakarrean egitea. Probak egun berean edo ondoko egunetan egin ahal izango dira. Epaimahai kalifikatzaileak atsedeen hartzeko tarte bat eman ahal izango du bi probak egun berean egiten badira.

Identifikatzeko, izangaiek NANA, pasaporte edo gidabaimena —edo dokumentu baliokidea, atzerriarren kasuan— eraman beharko dute probetara.

2. Argitaratzea.

Oposizio aldiko ariketak non, noiz eta zer ordutan hasiko den udalaren iragarki taulan eta web orrian argitaratuko da, gutxienez zazpi egun baliodun lehenago. Oposizioko gainerako ariketak egiteko iragarkiak, deialdi bakarra egin ezean, udaletxeko iragarki oholean eta udalaren web orrian argitaratuko ditu epaimahaiak. Iragarki horiek hurrengo ariketa egin baino gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazi beharko dira.

3. Deialdia.

Izangaiei behin baino ez zaie deituko ariketa bakoitza egiteko; izangaietako bat nahitaezko zeinahi ariketa egiteko aurkezten ez bada deitu dioten unean, automatikoki ariketa horretan eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea galduko du eta, beraz, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, behar bezala justifikatu eta epaimahaiak libreki aintzat hartutako kasuetan salbu.

Arau berdina aplikatuko zaie nahitaezko ariketaren bat hasita dagoenean ariketa egitera aurkezten diren izangaiei. Probak egitera berandu joaten badira edo ez badira aurkezten, proba horiei uko egin zaiela uste izango da.

4. Identifikazioa.

Epaimahai kalifikatzaileak edozein unetan eskatu ahal izango die izangaiei haien burua behar bezala identifika dezaten; horretarako, oposizio aldiko ariketa guztiak egitera NANarekin edo beste edozein agiri ofizialekin bertaratu beharko dute, epaimahaiaren aburuz aski bada izangaiaren nortasuna egiaztatzeko (pasaporte, gidabaimena, Atzerriarraren Identifikazio Zenbakia, eta abar).

5. Erreklamazioak.

Kalifikazioak argitaratu eta hiru egun balioduneko epea emango da emandako kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko.

Hamaikagarrena.- Lehiaketa

1. Oposizio aldiko azken ariketaren behin betiko emaitzak argitaratu ostean, hamar egun balioduneko epea ezarriko da lehiaketa aldian aipatutako merezimendu konputagarriak alegatu eta, hala badagokio, egiaztatzeko, euskara jakitearenak izan ezik.

2. Oposizio aldia gainditu dutenei soilik aplikatuko zaie lehiaketa aldiko kalifikazioa.

3. Lehiaketa aldiak ez du baztertze izaerarik izango eta bertan eskuratutako puntuak ezingo dira kontuan hartu oposizio aldiko probak gainditzeko.

4. Lehiaketa aldia oposizio aldia amaitu ondoren hasiko da, eta alegatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira fase horretan. Merezimenduen balorazioa oinarri hauetan deskribatutakoaren arabera egingo da, eta ezin izango da bestelako merezimendurik baloratu.

5. Lehiaketa aldian hauek baloratuko dira:

5.1. Esperientzia: 12 puntu, gehienez.

Administrazio publikoan, administrari laguntzaile lanpostuetan (deialdiko lanposturako eskatzen den titulazioa izatea eskatzen dutenak) edo C taldeko C2 azpitaldeko lanpostuetan egindako zerbitzuak.

Hilabete bati dagokion zatikiari 0,20 puntu emango zaizkio, gehienez 12 puntura arte. Ez dira kontuan hartuko hilabetetik beherako aldiak.

Atal honetan ez dira baloratuko Euskal Enplegu Publikoaren Legearen 30. artikuluan aipatzen diren behin-behineko langileen zerbitzuak, ez eta bekak eta prestakuntzarako praktikak ere.

Administrazio publikoan emandako zerbitzuak kasuan kasuko zerbitzuak jaso dituen administrazioaren ziurtagiri bidez egiaztatu beharko dira. Bertan adierazi beharko dira kontratuaren iraupena, betetako lanpostua, lanpostuan aritzeko eskatutako titulua eta eginkizunak.

Hamabigarrena.- Euskararen ezagutza baloratzeari

Merezimendu izango da hizkuntza eskakizunak egiaztatuta izatea. Egiaztatzeko, balio akademikoa duten tituluak emateko legez gaitutako ikastetxeek eta irakaskuntza zentroek emandako ziurtagiri ofiziala aurkeztu ahal izango da.

Lanpostua lortu nahi duten izangaien euskara ezagutza baremo honen arabera baloratuko da:

Idatzizko eta ahozko ulermena eta adierazpena:

2. HE: 3 puntu.

Epaimahaiak, oposizioko ariketak amaitu ondoren, eta lehiaketa aldiko merezimenduen balorazioari euskararen ezagutzaren balorazioa gehituta, sailkapen ordena ezarriko du, handienetik txikienera, hautaketa prozesuko aldi guztiak batuta.

Hamahirugarrena.- Hautaketa prozesuaren kalifikazioa

1. Emaitzak argitaratzea.

Oposizio aldiko ariketa bakoitzaren eta lehiaketa aldiko puntuazioak jendaurrean jarriko dira iragarkia jarrita udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian.

2. Merezimenduen balorazioa.

Oposizio aldia gainditu dutenei lehiaketa aldiko merezimenduak baloratzeko, aurreko oinarrietan ezarritako baremoen arabera esleitutako puntuak batuko dira.

Merezimenduen behin-behineko balorazioa argitaratu eta hiru egun balioduneko epea emango da emandako kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko.

Hamalagarrena.- Oposizio-lehiaketa gainditu dutenen behin-behineko eta behin betiko zerrenda

1. Epaimahaiak, oposizioko ariketak amaitu ondoren, eta lehiaketa aldiko merezimenduen balorazioari euskararen ezagutzaren balorazioa gehituta, sailkapen ordena ezarriko du, handienetik txikienera, hautaketa prozesuko aldi guztiak batuta, eta izangaien lehentasun ordena ere ezarriko du. Sailkapen ordenan puntuazio berdinketarik badago, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak jasotakoaren arabera ebatziko da. Berdinketak jarraitzen badu, oposizioko lehenengo proban puntuaziorik handiena lortu duenaren alde ebatziko da; bigarrenik, administrazio publikoetan zerbitzu denbora gehien eman duenaren alde; eta, azkenik, adinez zaharrena denaren alde.

Epaimahai kalifikatzaileak gainditu dutenen behin-behineko zerrenda onetsi eta argitaratuko du, kalifikazioen arabera, puntuazio ordenari jarraituz.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 10 egun balioduneko epean, interesdunek egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte haien aurka, eta behin betiko zerrenda onetsi baino lehen ebatziko dira.

3. Epe hori igarota, epaimahaiak kalifikazioen arabera eta puntuazio ordenari jarraituz egingako behin betiko zerrenda onetsiko du, eta udalaren iragarki taulan eta web orrian argitaratuko, eta alkateari helaraziko dio.

Aldi berean, izendapen proposamen osagarri gisa, azken bilkurako akta ere igorriko dio agintari horri. Akta horretan, puntuazio ordenaren arabera, proba guztiak gainditu eta deitutako plaza kopurutik gorako oposiziogile guztiak agertuko dira, hautaketa prozesua amaitu arte sortutako lanpostu hutsak betetzeko, hala behar bada.

Hamabosgarrena.- Agiriak aurkeztea

Proposatutako oposiziogileak udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko ditu deialdiaren oinarrietan hautaketa prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintzen egiaztagiria, gainditu duten pertsonen zerrenda argitaratu eta 20 egun balioduneko epearen barruan.

1. Kargu publikoa betetzeko ezgaituta ez dagoela eta administrazio publikoaren zerbitzutik diziplina espediente bidez bereizita ez dagoela adierazten duen adierazpena.

2. Administrazio Publikoetako Langileen Bataerazintasun Egoerei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean ezarritako bataerazintasun zioen baten eraginpean ez egotearen adierazpena.

3. Medikuen ziurtagiria, korporazioak zehazten dituen zerbitzu medikoek emana, oinarri hauen arabera dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duena. Desgaitasunen bat duten izangaiek organo eskudunaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute, egoera hori eta lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko gaitasuna egiaztatzen duena.

4. Lehiaketa aldiak aurkeztutako merezimenduen fotokopia konpultsatua.

5. Deialdiaren oinarrietan eskatutako berriazko gainerako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko agirien fotokopia konpultsatua.

Agiri horiek aurkeztu ezina behar bezala justifikatuz gero, izangaiak zuzenbidean onartzen den edozein frogabideren bitartez egiaztatu ahal izango du betetzen dituela eskatzen diren baldintzak. Langile funtzionario edo langile lan kontratadun direnak salbuetsita egongo dira eta haien aurreko izendapena lortzeko dagoeneko frogatutako baldintzak eta betekizunak ez dituzte agiri bidez justifikatu beharko; dagokien ministerioaren, toki korporazioaren edo erakunde publikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, haien egoera eta zerbitzu orrian ageri den inguruabar oro egiaztatzeko.

Ezinbestezko kasuetan izan ezik, proposatutako oposizioak ez balu aipatutako epe barruan dokumentazioa aurkeztuko edo ez balitu eskatutako betekizunak beteko, ezingo litzateke izendatu, eta haren jarduketa guztiak baliogabetuko lirateke, eta erantzukizuna izan lezake hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaeran egindako faltsukeriagatik.

Kasu horretan, jokoan sartuko da hamalagarren oinarrian aipatutako izendapen osagarriaren proposamena, puntuazio ordenaren arabera, baliogabetze horren ondorioz plazan tokia izango duenaren alde.

Hamaseigarrena.- Praktiketako funtzionario izendatzea

1. Deialdiko baldintzak betetzen dituela behar bezala egiaztatzen duen pertsona hautatua praktiketako funtzionario izendatuko du alkateak, eta izendapen hori dagokion aldizkari ofizialean edo aldizkari ofizialetan argitaratuko da.

Horrela praktiketako funtzionario izendatutako pertsona egoera horretan egongo da jarduera hasten duenetik karrerako funtzionario izendatu arte edo hautaketa prozeduratik kanpo utzi arte.

Praktikaldia nahitaezkoa eta baztertzaila izango da, banaka hartuta, eta hura gainditu ezean, izangaia hautaketa prozesutik kanpo geratuko da eta gainditzen ez duenak izan ditzakeen eskubide guztiak galduko ditu.

Praktikaldia, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 76.5 artikulua-
ren arabera, gehienez ere 3 hilabetekoa izango da.

Praktikaldian, administrari laguntzaile kategoriari datxezkion egitekoei lotutako lanbide eraginkortasuna ebaluatuko da. Ebaluazioa praktikaldiak irauten duen bitartean gertatzen diren gertakariei buruzkoa izango da soilik.

Praktikaldia amaitzean, gorago dagoenak edo, hala badagokio, zuzenean goitik daudenek amaierako txosten bat egingo dute praktikaldiari buruz, beren eskubideei dagozkien alegazioak edo oharak egin ahal izateko. Praktikaldiaren kalifikazioa gai edo ez gai izango da.

Hautatutako pertsonak praktikaldia gainditzen ez badu, akordio arrazoitu bidez izendatua izateko eskubide guztiak galduko ditu.

Hamazazpigarrena.- Lanpostuaz jabetzea eta lanpostura atxikitzea

1. Praktikaldiaren azken ebaluazio txostena egin eta hurrengo hilabetearen barruan, eta toki korporazioko organo eskudunak proposatuta, alkateak udaleko karrerako funtzionarioaren izendapena egingo dio oinarri hauen arabera hautaketa prozesua gainditu duenari.

2. Izendapena indarrean dagoen araudian ezarritako moduan argitaratuko da.

3. Izendatutako izangaiak hamar egun balioduneko epean jabetu beharko du lanpostuaz, izendapena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala egiten ez badu, ezinbestezko kasuetan izan ezik, bere jarduketa guztiak ondoriorik gabe geratuko dira, eta udaleko karrerako funtzionario izateko izan ditzakeen eskubide guztiak galduko ditu.

Hemezortzigarrena.- Lan poltsa. Lan poltsa kudeatzeko irizpideak

Oposizio aldia gainditu duten izangaien zerrenda baliagarria izango da udalean bertan antzeko eginkizunak betetzeko aldi baterako beharrak betetzeko, betiere titulazio betekizun orokor-
rak eta probetan parte hartzeko eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen badira.

Interesdunen baimenarekin, lan poltsa horiek beste toki erakunde batzuei eman ahal izango zaizkie, baldin eta hala eskatzen badute aldi baterako enplegu premiak betetzeko.

LAN POLTSA KUDEATZEKO IRIZPIDEAK

Lan poltsa irekita egongo da, hau da, eskaera berriak onartuko dira oinarri hauen arabera deialdi berriak egiteko hala erabakitzen denean, betiere udalak beharrezkotzat jotzen badu.

Lehenengo deialdian gainditu duten izangaiek lehentasuna izango dute izendapen hurrenkeran ondoz ondoko deialdietan hautatuak izan diren izangaien aurretik, nahiz eta azken horiek puntuazio handiagoa lortu.

Izangaiek lehenengo oinarrian aipatutako plazarako onartutakoen zerrenda bakarrean agertuko dira, hautaketa prozesuan lortutako puntuazioaren arabera ordenatuta. Zerrenda horrek Guardiako Udaleko bitarteko langileen lan poltsaren datu basean sartzeko eskubidea baino ez du ematen.

Hautaketa prozesua gainditu duten izangaiei (beraz, lanerako prest daude) honela deituko zaie:

— Deia egingo zaie lan poltsan jasotako zerrenda bakarraren lehentasunaren arabera plazarako eskatzen diren gutxieneko baldintzak betetzen dituzten izangaiei.

— Gehienez ere hiru aldiz saiatuko da interesdunarekin harremanetan jartzen, telefonoz edo bide telematikoz, bi eguneko epean. Deia jasotzen duen lan poltsako hautagaiak eskaintza onartu edo ukatu beharko du. Aldi berean, puntuazioaren arabera hurrengoak diren pertsonei deituko zaie, ordezkioak direla jakinarazteko.

— Interesduna aldi baterako baja egoerara igaroko da lan poltsan, egoera hauetako batean egoteagatik eskaintzari uko egiten badiu:

- Administrazio publikoan ari da lanean.
- Izaera publiko eta pertsonaleko nahitaezko eginbeharrak egiten ari da.
- Gaixo badago edo istripu bat izan badu.
- Aurreko apartatuetan jasota ez dagoen beste edozein arrazoi berezi, behar bezala arrazoituta dagoena, langileen batzordearen erabakiz.

Egoera horretara pasatzea eragin zuen arrazoia amaitutakoan, interesdunak idatziz jakinarazi beharko dio udalari, 15 eguneko epean, aldi baterako baja eragin zuen inguruabarra amaitu dela, eta berriz lanerako prest egoeran jarriko da.

— Izangaiarekin harremanetan jartzea lortzen ez bada edo izangaiek aldi baterako bajaran dagoela justifikatzen badu, ez da poltsan duen egoera aldatuko, eta poltsako hurrengo hautagaiari egingo zaio dei.

— Egindako eskaintzari justifikaziorik gabe uko egiten diona edo hautaketan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituen behin betiko baja egoerara pasatuko da lan poltsan, eta interesduna automatikoki baztertuko da egindako hautaketatik, eta bertan lortutako eskubideak galduko ditu.

Hemeretzigarrena.- Gorabeherak eta aurkaratzeak

Oinarri hauetan zehaztu gabe gelditu diren gaiei dagokienez, epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak argitzeko eta oposizioa behar bezala garatu dadin behar diren erabakiak hartzeko.

Interesdunek deialdia, oinarriak eta haren ondoriozko administrazio egintza guztiak eta epaimahaien jarduketak aurkaratu ditzakete, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan ezartzen dituzten kasuetan eta finkatzen duten moduan.

I. ERANSKINA**GAI OROKORRAK**

1. gaia. Espainiako Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak (10-55. artikulua).

2. gaia. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua: Euskal Herriaren eskumenak (10-12. artikulua). II. titulua: Euskal Herriaren aginteak (24. 39. artikulua).

3. gaia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen (II. titulua). (11-30. artikulua).

4. gaia. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena (1., 2., 3. eta 7. artikulua). 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko. (1-22. artikulua).

5. gaia. 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko (1-14. artikulua).

6. gaia. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko: datuak babesteko printzipioak (4. 10. artikulua) eta pertsonen eskubideak (11-18. artikulua).

7. gaia. 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: I. titulua; II. titulua; III. tituluko I. eta II. kapituluak (3-33. artikulua).

GAI ZERRENDA ESPEZIFIKOA

8. gaia. 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: I. titulua; II. titulua; III. tituluko I. eta II. kapituluak (34-52. artikulua).

9. gaia. 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: IV. titulua eta V. titulua (53-126. artikulua).

10. gaia. 40/2015 Legea, urriaren 1koa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena: Atariko tituluaren IV. eta V. kapituluak (32-46bis artikulua).

11. gaia. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea: V. tituluko I., II. eta IV. kapituluak (46. 54., 55. 62. eta 69. 72. artikulua); VI. tituluko I. eta II. kapituluak (79-83. eta 84-87. artikulua); VII. tituluko II. eta IV. kapituluak (92-97. eta 100-102. artikulua).

12. gaia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Euskadiko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen: II. tituluko I. kapituluak (8. 11. artikulua); III. tituluko 17. artikulua; eta V. titulua (43-46. artikulua).

13. gaia. Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia. III. titulua (14-54. artikulua).

14. gaia. Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia. IV. titulua (55-68. artikulua).

15. gaia. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa (I. titulua) (2-24. artikulua).

16. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Kontratu moten zehaztapena (12-18. artikulua). Erregulazio harmonizatutako kontratuak (19. 23. artikulua). Objektua, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, balio zenbatetsia, kontratuaren prezioa eta kontratuaren berrikuspena (99-105. artikulua).

17. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Administrazio publikoetako kontratuen prestaketa (115-124. artikulua).

18. gaia. 6/2005 Foru Arau Orokorra, otsailaren 28koa, Arabako Zergena. Tributuak. I. kapituluak. Xedapen orokorrak (16-34. artikulua). II. eta III. kapituluak (44-56. artikulua).

19. gaia. 11/2022 Legea, abenduaren 1koa, Euskal Enplegu Publikoarena. II. titulua (26-30. artikulua).

20. gaia. 11/2022 Legea, abenduaren 1koa, Euskal Enplegu Publikoarena. V. titulua (63-75. artikulua).

21. gaia. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. III. kapituluak. (14-29. artikulua).

22. gaia. Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretu Arauemailea, irailaren 29koa. Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren Testu Bategina. II. titulua (2-52. artikulua).

Arau erreferentziak informazio gisa baino ez dira ematen, eta, hala badagokio, hautaketa prozesu honetako izangaiei erantzukizuna da emandako araudia etengabe egokitzea eta eguneratzea. Ezagutu beharreko araudia deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean dagoena izango da.